



TOLOSAKO
UDALA

EA2030
2021-22 IKASTURTEA
LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA: BASOA

Ikasle eta irakasle agurgarriok:

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet *Eskola Agenda 2030 proiektuan BASOaren inguruan* egindako lanagatik.

Ingurumenaren zaintza eta kontserbazioa ezinbestekoak dira aldaketa klimatikoaren erronkari aurre egiteko, eta erronka potolo honi erantzun behar diogu era kolektiboan, baina era indibidualean ere bai.

Horregatik, azpimarratu eta eskertu nahi dizuet egindako lanetan proposamenak jaso izana, baita konpromisoak hartu izana ere.

Lerro hauen bidez, egin dituzuen proposamenen inguruan Udalaren konpromisoak zein diren azaldu nahi dizuet:

LH-KO PROPOSAMENAK:

Herrian berdegune gehiago egokitzea, toki naturalizatuak haur eta gazteek jolasteko, egoteko...

Azken aldian azpiegitura naturalak egokitzen ari gara, eta parkeak ere pixkanaka naturalizatzeko asmotan gabilta. San Estebanen, haur parkea berritu egingo dute eta bertan egurrezko jokoak eta naturan oinarritutako jokoak sortzeko elementuak jarriko dituzte. Amaroizko Auzoetxearen alboan eraikiko den estalkiaren proiektuaren baitan, berdegunean, naturan integratutako jolasak jarriko dira —obra martxan dago—. Joera hori izango da berritzen diren parke askotan.

Baso eskola proiekturako aterpe-guneak sortzea, euria egiten duenean motxilak uzteko eta arropaz aldatzeko.

Eskaera handia daukagu Baso eskolarako azpiegiturak sortzeko. Azken urtean Amaroizeko basoa landu dugu eta jarraituko dugu baso hori lantzen eta egokitzen.

Samaniego ondoan udal jabetzakoa den lursail bat prestatu nahi dugu baso eskola bertan garatu ahal izateko. Lursail hori datorren ikasturterako prest egotea nahiko genuke. Bi eremu horietan, Amaroizekoan eta Santa Lutziaikoan, aterpetxo bana egiteko asmoa dugu.

Mendi bideak markatzea eta zaintzea.

Aurten bi ibilbide berritu dira Tolosan. Bata, Urkizun (Urkizutik Urkizura, zirkularra) eta, bestea, Aldaban (Intxurreko bira). Mendi federazioarekin batera, bi ibilbide horiek berritu egin ditugu eta markatu. Homologatuta dauden bideek marka txuri eta horiak dituzte, eta mendi



TOLOSAKO
UDALA

federazioak zaintzen ditu. Bi ibilbide horien barruan beste bide motzago batzuk ere sortu ditugu familian egiteko.

Eskualdean, Tolosaldeko ibilbide homologatu guztien mapa atera da eta bertan jasotzen dira Tolosakoak. Horretaz gain, beste bide batzuk ere baditugu Tolosan, markatuta daudenak: Bedaiokoa (Zarateko bira) eta Uzturrekoa, Santa Lutziatik ateratzen dena.

Bestalde, mendi bide nagusiak urtero garbitzen dira eta sastrakak kendu. Herri bide zahar batzuk ere urtero berreskuratzen dira, gero eta mendizale gehiago dabilta, eta lanean ari gara aukera handiagoa izan dezaten. Maiatzean, San Estebanetik Lizardiko monumentura doan bidearen zati bat berreskuratu da, Mutitegi baserrien ondoan, mendizaleek errepidetik eta baserri artetik ibili behar ez izateko.

Bestalde, herritarrak oso kontzientziatuta daude, eta parte hartzen dute auzolanean bideen zainketan. Aurten ere Dama iturri dela-eta auzolandegiak eta auzolan deialdi bat egingo dira, eremua berreskuratzeko.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO/BATXILERGOKO PROPOSAMENAK

Mendi eremu pribatuak erosi, basoak modu egokian kudeatzeko eta zaintzeko.

Klima aldaketaren plangintzan barneratu dugu ekintza hau (baso lursailak eskuratzea).

Egia da Tolosan baso publiko gutxi dagoela. Lursail handiena Uzturre azpikoa da eta hor pixkanaka hariztia garatzen ari da, orain dela 8 urte ikasleekin batera egin zen landaketa bati esker.

Adi egongo gara, baso lursailen bat eskuratzeko aukera izanez gero, hura aprobetxatzeko.

Hitzaldi eta mendi ekintzak antolatzea.

Aurten Biodibertsitate gunea sortu da. Ekimen horren inguruan hitzaldi eta tailer asko ari gara antolatzen, ez bakarrik helduentzat, eta gazteok ere parte hartu dezakezue. Orain arte oso tailer interesgarriak egin dira, animalien arrastoak ezagutzeko, putzuetan dauden anfibioak ezagutzeko....

Ekainean, Aranzadikoekin batera, enaren inguruan tailerrak eta irteerak antolatu ditugu, espezie horiek hobeto ezagutzeko eta kabiak zaindu ahal izateko. Programa hori ikastetxetara ere zabaldu da.

Ibaiaren garbiketa egiten den bezala, baso garbiketak ere antolatzea.

Kasu jakin batean ikusten badugu zikinkeria asko pilatzen dela, garbiketa berezi bat antolatzen dugu, baina normalean mendian hondakinak sakabanatuta egoten dira eta eraginkorrena da bakoitzak bidean ikusten duena jasotzea eta jaitsitakoan dagokion tokira botatzea.



TOLOSAKO
UDALA

□ ELOSEGI PARKEA: zaborra sailkatzeko zaborrontzi egokiak jartzea eta iturria jartzea.

Elosegi parkea ez da herriko beste parkeak bezalakoa. Parkearen izaera naturala mantendu nahi izan dugu; horregatik ez dugu paperontziz eta azpiegiturez bete.

Elosegi parkea herriko erdigunean daukagun parke aberatsa da, bertan hegazti espezie asko bizi dira eta denon artean zaindu behar dugu. Egokiena da sortzen ditugun hondakinak kanpoan dauden zaborrontzietan botatzea.

Aurtengo lanketaren ondorioen artean sarri agertu da Elosegi parkean askotan zaborra eta jarduera ezegokiak ikusten direla. Lorazainek, parkeko landarediaren mantentze-lanez arduratzeaz gain, garbiketak ere egiten dituzte.

Zaborraz gain, beste portaera ezegoki batzuk ere azaldu dira, adibidez: pintaketak egin dituzte, altzariak (bankuak, kartelak, zakarrontziak...) eta zuhaitzak puskatu dituzte, txakurrekin arazoak izan dira...

Elosegi parkea herritarrok disfrutatzeko izateaz gain, ikasle gazteenek ere erabiltzen dute Baso eskola proiektua bertan lantzeko.

Foro honetan proposatutakoari kasu eginez, datorren ikasturte hasieran, Elosegi parkean auzolanean egingo den garbiketa bat antolatuko dugu. Garbiketa eta txukunketa hori herritar guztien kontzientziazioa lantzeko erabiliko dugu, eremu hau baso eskolarako erabiltzen dela eta parkeak duen biodibertsitatea zaindu behar dugula aldarrikatzeko.

Bukatzeko, zoriondu egin duzuen lanagatik, eta eskertu ere bai, udal taldearen izenean, eta gogoratu Udala irekita duzuela behar duzuenarako.

Proposamen horiek kontuan hartuko ditugu eta, ahal den neurrian eta gure eskumenekoak direnak, betetzeko konpromisoa hartzen dugu, zuek ere aipatutako konpromisoak beteko dituzuelakoan.

Ondo izan!